

AUTOEBALUAZIOA (4. GAIA)

1. Sailkatu ondoko jariakin ez-newtoniarrak denborarekiko duten menpekotasunaren arabera:

Aukera bat baino gehiago:

- A Reopeptikoak
- B Pseudoplastikoak
- C Bingham plastikoak
- D Tixotropikoak

2. Jariakin pseudoplastikoetan balioa 1 baino txikiagoa izan behar da.

- A Egia
- B Gezurra

3. Zein jariakinek erakusten dute jariakin newtoniarren antzeko portaera?

- A Herschel Bulkley
- B Bingham plastikoak
- C Pseudoplastikoak

4. Zein jariakinentzako kalkulatu beharra daukagu Hedstrom zenbaki adimentsionala?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Potentzia legea
- B Bingham plastikoak
- C Newtoniarrak
- D HerschelBulkley

5. Zein jariakinek izan dezakete $n=1$ portaera indizea?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A HerschelBulkley
- B Newtoniarrak
- C Dilatanteak
- D Bingham plastikoak
- E Pseudoplastikoak

6. Herschel Bulkley motatako jariakinetan n balioa 1 baino txikiagoa izan behar da beti.

- A Egia
- B Gezurra

7. Zizailadura esfortzuak, jariakinaren deformazio angeluarra dakar, hots, esfortzu tangenziala da.

- A Egia
- B Gezurra

8. Jariakin baten trinkotasun indizea (K) jariakinaren biskositatearen baliokidetzat har dezakegu.

- A Egia
- B Gezurra

9. Jariakin pseudoplastikoetan biskositatea:

- A Handitu egiten da zizailadura esfortzua handitu ahala
- B Murriztu egiten da zizailadura esfortzua handitu ahala
- C Ez da zizailadura esfortzuaren menpekoa

10. Zein jariakinek jario atalasea edo esfortzu minimo bat gainditu behar dute jariatzeko?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Dilatanteak
- B HerschelBulkley
- C Bingham plastikoak
- D Pseudoplastikoak
- E Newtoniarrak

11. Jariakin ez-newtoniarren biskositatea ez da zizailadura esfortzuaren menpekoa.

- A Egia
- B Gezurra

12. Jariakinaren portaera indizeak (n) jariakin newtoniarretik duen desbiderazioa adierazten du.

- A Egia
- B Gezurra

13. Zein solidok berreskuratzen dute bere jatorrizko egoera indarra aplikatzeari uztean?

- A Elastoplastikoak
- B Plastikoak
- C Elastikoak

14. Zein jariakinentzako erabiltzen da Re orokortua (Re_G) Reynolds zenbakiaren ordeztu?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A HerschelBulkley
- B Potentzia legea jarraitzen duten jariakinak
- C Bingham plastikoak
- D Newtoniarrak

15. Zein elikagaietan irabiaketa pairatu ostean likatasuna txikitu egiten da?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Arrautza zuringoa
- B Maionesa
- C Gazta gogorak
- D Ketchupa